

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2922

315/2024 EBAZPENA, ekainaren 5ekoa, Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Iñigo Herrera Cuevas jauna izendatzen den, aldi baterako eta lau urte luzagarriz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzu Sanitarioko buru.

Uribeko ESiko zuzendari-gerentearen abenduaren 1eko 449/2023 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Uribeko ESiko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko, lehiaketa-sistemaren bidez. (2024ko otsailaren 8ko EHAA 29. zk. eta 2024ko otsailaren 15eko BOE 40. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin du aurkeztutako eskabidea, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Iñigo Herrera Cuevas jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESiko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzu Sanitarioko buru.

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Iñigo Herrera Cuevas jauna izendatzea, aldi baterako, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESiko Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologiako Zerbitzu Sanitarioko buru.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat etorritz. 2024ko ekainaren 5etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du kargua, luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen denean izan ezik, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikulua ezarritakoarekin bat etorritz.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunari eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESleri ebazpen honen berri ematea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Urduliz, 2024ko ekainaren 5a.

Uribeko ESiko zuzendari-gerentea,
JESÚS MANUEL SUÁREZ ROMAY.